

II. GAZTE PLANAREN EGITURARI BURUZKO EBALUAZIO TXOSTENA

II. Gazte Planaren ebaluazioren metodologia definitzerakoan, bere aplikazioaren azken fasean gazteriaren egoerari buruzko beste diagnostiko bat egingo dela aurreikusten da.

Ebaluazio honetan, halaber, Planean esku hartzen duten erakundeek honako hauen inguruan egindako balorazioa ere barne hartzen da: burututako ekintzen garrantziaren inguruan, Planean proposatutako dagokion esku-hartze ildoak estaltzeko egokia den, gazteengan izan duen eraginaren inguruan eta zenbaterainokoa izan den sailak Planaren aplikazioan izandako inplikazioa.

“Gazte programak programatu eta ebaluatzeko eskuliburua”-n zehazten denaren arabera, ebaluazio orokorrak ebaluazio partzialek jarraitutako irizpide berberak beteko ditu, baina ez dira esku-hartze ildo bakoitzaren eraginak baloratuko, Planaren ondorio orokorrak baizik. Horretarako, jarraipen-txosten partzialak ez ezik, gazteriaren egoera islatzen duten zeharkako adierazleak ere erabili beharko dira. Txosten honek, gainera, Planean barne hartutako ekintza guztien betetze-mailaren laburpena ere jasoko du.

Eztabaida eta balorazioetako ondorioen arabera, II. Gazte Planaren diseinuaren analisia egin eta burututako ekintzei eusteko, eta horiek birbideratu edo kentzeko beharra aztertu da, eta, ondorioz, III. Gazte Plan bat egitea beharrezkoa den hala ez.

EUSKADIKO GAZTERIAREN DIAGNOSTIKOA

Lan-mundua

- Azken lau urteetan langabeziak behera egin arren, 2000tik hona nabarmen igo da prekarietatea: gazteen %31k baino ez du kontratu mugagabea; %60ak sei hilabetera iristen ez ziren lan bat edo gehiago izan ditu eta %33ak lanaldi partziala egiten du.
- Egoera honek eragin handiagoa du emakumeengan, dena den, aipatzekoa da emakumeak eta gizonak parekatzen doazela gai honetan. Parekotasun horrek ez dakar nesken egoeraren hobetzea baizik eta mutilenena txartzea.

Familia-egoera

- Euskadiko ia gazte guztiak oso edo nahiko pozik daude duten familia-bizitzarekin (%97).
- 2000 urtean ikusten zen moduan, euskal gazteen hamarretik bederatzi ezkondu barik edo bikotekidearekin bizi barik heltzen da 30 urtetara, eta gehienak familiarekin bizi dira (%84). Dena dela, gehienek nahiko lukete gurasoen etxetik irten, edo horrela diote, behintzat (%70).
- EAEko gazteak berandu arte gurasoen etxean jarraitzeko arrazoiak ekonomikoak dira, batez ere: bakarrik gazteriaren laurden bat bizi da bere diru-sarrera propioetatik eta/edo bere bikotekidearenetatik eta, eta EAEko gazteen %89arentzat etxebizitzaren garestitasuna da gurasoen etxetik irteteko eragozpen nagusia.
- Bestalde, inkestatuen %4k bakarrik dituzte seme-alabak. Azken urteotan familiak aldaketak izan baditu ere, EAEko gazteek oraindik nahiago dute seme-alabak ezkontzaren barruan izatea.
- Etxeko lanak direla-eta, emakumeak oraindik protagonistak dira eta lan horiek gehienak egiten dituztenak. Dena dela, lan horiek erdibana banatzen dituzten gizonen kopurua apurka-apurka gorantz doa.

Jarrera Politikoak

- EAEko gazteen erdiak baino gehiagok (%54k) diote arazo publikoetan ez dutela gehiago parte hartu nahi, gehiago parte hartu nahiko luketen %27ren aurrean. Parte-hartzearen inguruko gogogabezia hau nabarmen igo da 2000 urtearekiko.
- Gai publikoetan parte-hartzeko gogoak gutxitu den arren, gazteen ia hiru laurdenak (%70) Euskal Herriak bere etorkizun politikoa erabakitzeko kontsulta bat egitearen alde agertzen dira.
- Euskadiko gazteak, ideologikoki, ezkerrekoak dira (%47), eta batez ere euskal herritarrak (%52), eta alderdi politikoetatik urrun sentitzen dira (gazteen %40 baino gehiago ez da euskal panorama politikoan dauden alderdi batenganako ere hurbiltasunik sentitzen, eta hurbiltzekotan ere, portzentaje horrek ez du inola %10a gaunditzen).
- Gazteen %10ak baino ez du alderdi politikoren batetik hurbiltasuna adierazten eta europar sentimendua oso gutxi zabaldua dago (bakarrik %36 sentitzen da oso edo nahiko europarra).

Aisialdia

- Euskal gaztediak astegunetan libre ordu kopuru handia duela dio (%46k egunean aisialdirako lau ordu baino gehiago dituela diote), ordu horiek, gainera, azken lau urteetan gehitu egin dira. Euskal gaztediak bere denbora libre batez ere familiarekin egoten, telebista ikusten, musika entzuten, telefonoz hitz egiten edo mezuak edo e-mailak bidaltzen, lagunekin egoten, eta paseatzen edo kalean egoten pasatzen du. Baina, jarduera politiko-sindikalak, borondatezkoak edota erlijiosoak dira euskal gazteek gutxien egiten dituztenak.
- Elkarte zaletasuna gutxitu egin da azken lau urteotan. Elkarteren bateko kide diren gazteen ehunekoa %42,3tik %35era jaitsi da. Elkarte-motari dagokionez, kirolelkaratek dituzte jarraitzaile gehien, eta hauen atzetik, nahiko aldearekin, kultura-edo arte-elkaratek eta txoko edo jolas-elkaratek.
- Internet erabiltzen duten gazteen kopurua izugarri areagotu da azken urteetan: gazteen %80 baino gehiago nabigatzen da sarean zehar, 2000. urtean egiten zuen %45,7aren aldean. Horrez gain, EAeko gazteen hiru laurdenak baino gehiagok (%78) dauka etxean ordenagailua eta erdia baino gehiago etxetik bertatik sartzen dira Interneten. Oro har, 15 eta 19 urte bitarteko gazteek erabiltzen dute gehien ordenagailua.

Egoeraren balorazioa

- EAeko gazte gehienak gustura daude egoera pertsonalarekin(%70), baina EAeko gazteen egoera, eta EAekoa oro har, erdipurdikoa dela esaten dute (%60). EAeko gazteek aipatzen dituzten kezka nagusienak ondorengoak dira: lana (%61) eta etxebizitza (%59). Bi gai horiek ziren 2000an ere aipatuena, nahiz eta etxebizitza orduetik (%31,2) hona aipamenetan asko igo (%59). Atzetik, aipamen kopuru txikiagoekin, dirua, ikasketak, terrorismoa, politika eta drogak daude.
- EAeko hezkuntza-sistemari buruzko iritzia dagokionez, gazteen erdiak baino gehixegok (%53) oso ona edo nahikoa ona dela deritzote, %35ek ez ona ez txarra dela eta soilik %8k oso edo nahikoa txarra dela.
- Euskadiko gazteak kritiko agertzen dira euskal erakundeek gaztediaren gaietan egiten duten lanarekin. Eusko Jaurlaritzak lortzen du baloraziorik onena gazteen aldetik 4,6 punturekin, udalek 4,2 puntu eta diputazioek 4,4 jasotzen dituzten bitartean.

Erljioa

- Euskadiko gazteen erdiak baino gehiagok fedegabetzat du bere burua (Jainkoarengan sinesten dute baina erlijioetan ez, erlijioa ez zaie interesatzen edo agnostikoak dira eta ez dute sinesten edo ateoak dira). Beraz, 2000. urtean lortutako datuekin alderatuz gero, erlijiozkotasuna galdu da. Halaber, katolikoa ez diren beste erlijioen presentzia fededunen %1era murrizten da.
- Gainera, EAeko gazteak ez dira Espainiako Estatuko gainerako gazteak bezain fededunak. Estatu-mailan azken urteetan erlijiozkotasunak gazteen artean gora egin badu, Euskal Autonomia Erkidegoan prozesua alderantzizkoa izan da.

Gizarte-balioak

- Oro har, Euskadiko gazteek gehien onartzen dituzten gizarte jarduerak dibortzioa eta harreman homosexualak dira. Gehienek abortua eta eutanasia egoera jakin batzuen baldintzapean onartzen dituzte.
- Euskadiko gazteek zorrotz gaitzesten dituzte indarkeria fisiko guztiak: bikote Barrukoa (%99), haurren kontrakoa (%94), animaliak jotzea (%95) zein helburu politikoak lortzekoa (%91).
- Azturei dagokienez, babes-neurrik gabe sexu-harremanak izatea (2000.ean baino dezente gehiago) eta arazo psikologikoak ere Euskadiko gazteen artean oso edo nahikoa zabaldua daudela uste dute gehienek. Gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok onartzen du gehiegi edan izana azken urtean (eta bereziki mutilak eta 20 eta 24 urte bitartekoak). Gazteen gutxi gorabehera laurden batek onartzen du azken urtean trafiko arauak hautsi eta legez kanpoko drogak hartu izana (orain ere mutilak dira gehien onartzen dutenak).
- EAeko gazte gehienak seguru sentitzen dira hiri edo herrian. Gazteen %14 bakarrik beldurtzen du gaez kalera atzeratzeak.
- Euskadiko gazteak tolerantak dira pentsatzeko beste moduekiko (10 gaztetatik bat baino ez da desgogora sentitzen bestelako ideia edo sinismenak dituzten pertsonekin).
- EAeko gazteek neonaziak eta eskuin-eskuinekoak arbuiatzen dituzten gehien.
- Atzerriko etorkinez ari garenean, EAeko gazteentzat bereziki afrikarrez (%68) edo Hegoamerikarrez (%45) ari gara. Atzerritar kopuruari dagokionez, EAeko gazteen %61ak uste du asko direla, baina ez gehiegi, eta hamarretik batek, berriz, gutxi direla. Dena den, Euskadiko gazteen %24ak uste du gehiegi direla, eta portzentaje hau bikoiztu egin da 2000. urtekoarekin alderatuz.
- Etorkin atzerritarrak hartzeari dagokionez, gazteen %57ak uste du bakarrik lanerako baimena dutenei utzi behar zaiela sartzen, eta %28ak, berriz, murrizketarik gabe utzi behar zaiela sartzen. Gazteen %4 baino ez da sarrera debekatzearen aldekoa.

Euskara

- 2000. urtetik, EAeko gazteen euskararen ezagutza-maila areagotu egin da esparru guztietan: gazteen erdiak baino gehiagok (%56) nahiko ongi edo ongi hitz egiten du euskaraz. Irakurri (%58) eta idazteko (%57) gai direnen ehunekoa oso antzekoa da eta ahozko ulermenari dagokio ehunekorik handiena (%62).
- Dena den, senitartean, lagunekin edo bikotean gaztelania erabiltzeko joera da nagusi gazteen artean.
- EAeko gazte gehienak daude euskararen sustapen publikoaren alde: %51k uste du inbertsio gehiago egin beharko liratekeela arlo horretan, eta %4a baino ez dago inbertsio horiek murriztearen alde.

Sexualitatea

- Sexualitatea nahiko edo oso garrantzitsua da EAEko gazteentzat (%85). Sexualitateak nerabegarotik aurrera hartzen du garrantzi handia.
- Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko gazteak batez ere lagunekin hitz egiten dute sexualitateaz. Oraindik ere EAEko hamar etxetatik lautan ez da sexualitateaz mintzatzen, horietan sexualitatea tabua dela dirudi. Hala ere, irakasleekin gutxiago hitz egiten dute sexuaz gurasoekin baino.

ERAKUNDEEN BALORAZIOA

Tarteko ebaluazioan ateratako ondorioetatik abiatuta, ebaluazio honetan Planean esku hartzen duten erakundeen ondorengoei buruzko balorazioa barne hartzen da: burututako ekintzen garrantziari buruzkoa, Planean proposatutako dagokion esku-hartze ildoak betetzeko egokitasunari buruzkoa eta Plana aplikatzerakoan sailaren inplikazio-mailak gazteengan nola eragin duen.

Oro har, Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinek programatutako helburuak lortu direla eta aurreikusitako ia proiektu guztiak gauzatu direla esan daiteke. Atxikitako gainerako erakundeei dagokienez, ez dago emaitza orokorrak baloratzeko behar besteko informazioa.

Helburuak lortzearen alde egin duten faktoreak ondorengo hauek izan dira: baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak izatea, beste erakunde batzuekiko koordinazioa eta dagokion programaren garapenez arduratutako sailaren inplikazio politikoa.

Hainbatetan helburuak erabat lortzea zaildu duten arrazoi nagusiak, berriz, honakoak izan dira: eskaririk eza, baliabide ekonomikorik eza, aitzindaritzarik eza eta koordinazio falta.

Oso modu positiboan baloratzen da Gazte Plana osatzen duten programen inguruko Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinetako politikoen zein teknikarien inplikazioa.

Programen erdiak baino gehiagok aurreikusitako aurrekontua gauzatu dute. Aurreikusitakoa baino gehiago edo gutxiago gastatzeko emandako arrazoi nagusia egiazko eskaria eta espero zena bat ez etortzea izan da.

Eusko Jaurlaritzako teknikariak Aldundietakoak baino gusturago daude beren programek lortutako estaldurarekin eta gazteak horietara heltzeko erraztasunarekin.

Teknikari arduradunen aburuz, programa guztiak egokiak dira, hau da, eutsi egin behar zaie. Ezabatu beharreko programa bakar bat agertu da, hots, Elkartegintzaren Liburu Zuriaren publizitate eta hedapenerako laguntzak programa, izan ere dagoeneko gauzatu da (Liburua argitaratu eta banatu da dagoeneko, beraz, etorkizunean ez da beharrezkoa programa honekin jarraitzea). Bestalde, programa guztien %8 aldatu egin beharko litzateke.

Gazte Planaren egokitasun orokorra, erakunde bakoitzak programen garapenean egindako ekarpenen arabera baloratzen da. Oro har, programa erdiez arduratutako teknikariak eszeptiko samar azaltzen dira Gazte Planaren ezarpenak ekarri dituen hobekuntzak direla-eta. Adierazitako ekarpen nagusiak tarteko pertsonen motibazioa eta programen sustapena izan dira, eta horien atzetik, garrantziaren araberako hurrenkeran, informazio-trukea eta erakunde eta sailen arteko lankidetzaren hobetzea.

II. Gazte Planaren balorazioa

Ondorengoa da Zuzendaritza Batzordearen Idazkaritzak 2002-2005rako II. Gazte Planaren inguruan egiten duen balorazioa:

Lehenik eta behin, oso positiboki baloratzen da ekintza positiboaren gauzatze-maila. Horrela, kuantitatiboa baino ez den analisi batez egiaztatzen da 2001. urtean 48.000.000 euro baino gehiago gastatu bazen (lehentasunezko 56 ekintza burutuz), 2005. urtean 144 ekintza positibo gauzatu dituela Eusko Jaurlaritzak, 100.000.000 euro baino gehiago gastatuz.

Ikuspegi kualitatiboaren arabera, lana, hezkuntza, etxebizitza, osasuna eta gizarte-ekintza, eta gazteen aisia eta kultura arloetan lortutako emaitzak nabarmendu behar dira.

Bestalde, oso positiboki baloratzen da Planean, gazteria-arloko jarduera orokorrari modu koordinatuan ekite aldera, esku hartzen duten erakundeen, sailen eta gizarte-eragileen arteko koordinazioa eta esku-hartzea bideratzeko sortutako organoen (Zuzendaritza Batzordea, Batzorde Teknikoa eta sailen arteko Lantaldeak) funtzionamendua. Gainera, Gazteriaren Euskal Behatokiak politika integralak aztertu eta sustatzearen aldeko lana egin du. Nabarmentzekoak dira, halaber, sortutako tresnak, hala nola: Gazte programak eta programak programatu eta ebaluatzeko eskuliburua, edo Euskadiko gazteria politikaren programazio agiria.

Hobetu beharreko alderdien artean honako hauek aipatu behar dira: erakundeen arteko koordinazio-maila areagotzea, erakunde bakoitzak, Eusko Jaurlaritzak egiten ari den legez, programazio zehaztu eta ekintzen ebaluazio deszentralizatu egitea, eta toki-eremuko gazte-planak egiteko laguntza modu arinagoan eta eraginkorragoan helaraztea.

Programatutako ekintza guztiak bat datoz EAEko II. Gazte Planean aurreikusitako ekintzaren batekin, lau urteko indarraldirako programatutako ekintza bakoitzari Gazte Planean esleitutako kodetzean islatuta gelditu den legez (arloan - esku-hartze ildoan - ekintza positiboa) eta, hori egiaztatzeko, Zuzendaritza Batzordeak urtero programatutako ekintzen eta Planean definitutako ekintzen arteko loturaren aldeko txostena egin du.

Era berean, azken lau urte hauetan (2002-2005), urte bakoitzerako ekintzen programazioan izandako koordinazio-maila ere modu positiboan baloratu du Zuzendaritza Batzordeak, eta gainera jakinarazi du, Batzorde horrek 2003ko abenduaren 3ko bileran landutakoaren inguruan aurrerapen adierazgarriak izan direla. Bilera horretan sailen arteko koordinazioa hobetzeko neurriak onartu ziren, hots:

- Arloko mahaiak.
- Sailen eta erakundeen arteko gazte-politikari lotutako planak, zeinetan, Gazteria eta Ekintza Komunitarioko Zuzendaritzaren bitartez, Gazte Planaren Idazkaritzak esku hartzen duen.
- Programazio eta ebaluazio deszentralizatu; horretarako Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak egindako gazteria-politikaren agiri deskribatzailearen laguntza izango da.
- Gazteentzako baliabide-gida.
- Sailen arteko informazio estatistikoa elkartrukatzea.

Neurri hauek, II. Gazte Planean jasotako osagarri izan behar zuten. Izan ere, I. Gazte Planean, eta helburu honekin, hainbat koordinazio-mekanismo abian jartzea diseinatu zen, hots, Zuzendaritza Batzordea, Batzorde Teknikoa, Arloz Arloko Batzordeak, Lan-mahaiak eta Gazteriaren Euskal Behatokia. Hauek, egonkortasun eta jarraitutasuneko izaerakoak izanik, planteatutako arazoei erantzun ahal izateko koordinazio logika bat ezartzea ahalbidetu zuten. II. Gazte Planak, udal-politikak eta Euskadiko askotariko gizarte-eragileak barne hartzearen alde aurrera egin ahala, gazteen aldeko esku-hartzeetan gero eta lehenetsun handiagoa bereganatu du koordinazio egokia ezartzeko eskakizuna, horretarako koordinazio-modu eta -mekanismo berriak beharrezkoak izaki. Horrela, ondorengoak dira koordinazio, sustapen eta garapen beharrei erantzun ahal izateko erabilitako elementuak:

ERAKUNDEA	GAZTE PLANAREN KOORDINAZIOA
<i>GAZTE PLANA</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzendaritza Batzordea • Batzorde Teknikoa • GEBren Zuzendaritza Kontseilua
<i>EUSKO JAURLARITZA</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzendarien sail-maila eta Teknikarien sail-mahaia
<i>ALDUNDIAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteriaren foru-batzordeak
<i>UDALAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteriaren udal-batzordeak
<i>GIZARTE ERAGILEAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Topaketarako gunea
<i>GAZTERIAREN KONTSEILUA</i>	<ul style="list-style-type: none"> • “Gazte ontziak”

ERAKUNDEA	GAZTE PLANAREN SUSTAPENA ETA GARAPENA
<i>ZUZENDARITZA BATZORDEA</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazte Plana garatzeko urteko konpromisoak programatu eta ebaluatzea • Eusko Legebiltzarraren Emakume eta Gazteria Batzordearen aurrean azaltzea, ekitaldi bakoitzaren ekintza estrategikoak aurkezteko • Gazte Plana gazteei eta erakundeei jakinarazteko Plana • Udal teknikarien aldizkako lurralde-topaketak
<i>GAZTERIAREN EUSKAL BEHATOKIA</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu tekniko eta dokumentala, gazteria-politiketan aditu, profesional eta bitartekarientzat • Aditu sektorialen topaketak • Teknikarien, agente sozialen eta gazteen prestakuntza • Gazte-errealitateari buruzko ikerketa <ul style="list-style-type: none"> ○ Liburu zuriak egitea (Aisialdiari buruzkoak, Gazteen parte-hartzeari buruzkoak, Balioak eta gazte-indarkeriari buruzkoak...)
<i>EUSKO JAURLARITZA</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazte-ataria • Leihatila bakarra (Gazte aukera) • Honi lotutako erakundeen arteko planekiko koordinazio-mahaia • Udal plan estrategikoak landu eta garatzeko baterako finantziazioa, Aldundiekin koordinatuta
<i>FORU ALDUNDIAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Sailen barneko eta sailen arteko koordinazioa sustatu eta hobetzea • Gazteriaren Foru Batzordeak finkatzea • Gazte Planaren udal bulego eta baliabideak abian jartzeko laguntza • Udal plan estrategikoak landu eta garatzeko baterako finantziazioa, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta
<i>EUSKAL HIRIBURUETAKO UDALAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteria-politikako plan estrategikoak lantzea • Gazte Plana garatzeko udal bulego teknikoak sortzeko giza baliabideak eskaintzea, Gobernuaren eta Aldundiaren laguntzaz • Sailen arteko koordinazioa sustatzea
<i>UDALAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteriaren udal plan estrategikoak landu eta garatzea, Gobernuaren eta Aldundiaren laguntzaz • Udaletan gazteria-politika sustatzea, gazteen parte-hartzea sustatzeko proiektuei dirulaguntzak emanez
<i>GAZTEAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteen topaketarako foro egonkorra • “Gazte-ontziak » (EGK) sortu eta garatzea • Gazteen elkarte-mugimenduari laguntza ematea, beren ordezkaritza-organoen bidez (EGK)
<i>GIZARTE ERAGILEAK</i>	<ul style="list-style-type: none"> • Gazte Plana koordinatzeko eta garatzeko topaketa-foro batean parte hartzea • Instituzioekiko akordioak sinatzea, Gazte Planaren ekintzak garatzeko • Mahai sektorialak antolatzea, berriazko gaietan gogoeta egiteko, eztabaidatzeko eta jarduteko

Sailen arteko koordinazioa sustatzeko mekanismo eta neurri hauek guztiak definitu ostean, horien inguruan egindako ebaluazioa ez da oso egokia. Kontuan hartuta Euskadiko egituraketa instituzionalak koordinazio-ahalegin ikaragarria eskatzen duela arloko edozein plan edo politika garatzeko, Gazte Planaren kasuan eta, hedapenaz, erakunde eta diziplina arteko konpromiso batetik abiatutako gazteria-politikenean, ezinbestekoa izan beharko luke koordinazio-beharrak. Hala ere, neurri hauen garapena ebaluatzerakoan nabarmendu behar dugu koordinazio-mekanismo hauek eta Gazte Planaren sustapen- eta garapen-mekanismoak abian jartzeari buruzko balorazioa ez dela Plana hau definitu zenean espero zen bezain eraginkorra izan. Foru-aldundiek eta udalek Planari atxikitzeke nahia adierazi arren, erakunde ezberdinek bereganatutako konpromisoak ez dira behar bezala bete.

Eztabaida eta balorazioen ondorioen arabera, II. Gazte Planaren diseinuaren azterketa egin da eta aurreikusitako konpromisoak mantendu, birbideratu ala kentzea, berriak txertatzea ala jarduteko lehentasunak aldatzea dagokion aztertu da.

2005 honetako lehen hilabeteetan aztertu ditugu alternatiba desberdinak Kultura Sailekook Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen Idazkaritzakoekin batera, II. Gazte Planaren indarraldia amaitzekotan dela-eta.

Honela, II. Gazte Planaren luzapenaz gain, batik bat bi aukeraren artean erabakitzen aritu gara:

- Lehenengoa: 200-2009rako III. Gazte Plana egitea. Honek, aurreko planean egin genuen legez, diagnostikoa eguneratzeko eta II. Gazte Planaren emaitzak eta ekintza positibo bakoitza mantendu, kendu edo birformulatu behar den ebaluatzeke lantaldeen prozesua abian jartzea, eta ekintza berriak hartzearen proposamena jasoko lukeen lehen zirriborroa egitea eskatuko lituzke.
- Bigarrena: Gazteriaren Euskal Legea prestatzea; honek ere Legearen lehen zirriborroa egiteke lantaldeen prozesua abian jartzea eskatuko luke.

Prozesu biei aldi berean eusteak, gazteria-politika integralak finkatzera eta gazteei arreta eskaintzera zuzendutako helburu berberak lortzeko ahaleginak bikoiztea suposatuko luke.

Beraz, Gazteriaren Legea egitea aukeratu da, Gazte Planak sortutako esparru boluntarista gaindituko duen tresna bat izan dadin. Eta Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa izango da, egungo legealdian, Gazteriaren Lege proiektua prestatzea, ondoren, Eusko Legebiltzarrerara igorri, eta honek horren inguruan eztabaidatu eta legea onar dezan.

Etxebizitza, lana, hezkuntza, aisia eta kultura bezalako arloekiko erantzun egonkor eta koordinatua emango dituen euskal gazteriarentzako araudi integrala prestatu beharko da. Horrela, sortuko den legeak, besteak beste, gazteria-politika integralen normalkuntzarako esparru egoki eta beharrezkoa sortzea eta euskal erakunde ezberdinen arteko harremanak koordinatzeko mekanismoa gauzatu, egiazko egonkortasuna eman eta bermatzea ahalbidetuko du. Izan ere, euskal erakunde ezberdinok, egunera arte, Gazte Plana abian jarri zuen formula boluntarista baten arabera lan egin dugu.

Bestalde, hirukoaren bat egiteko erabakiaren bitartez, gazteriaren legea prestatzeaz gain, “lan, prestakuntza, etxebizitza, kultura eta aisiaren arloetan esku hartze integrala bermatuko duen gazteria-politika bat” bultzatzeko konpromisoa hatu behar du Eusko Jaurlaritzak.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Gazteriaren Legea onartu bitartean, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko maiatzaren 28ko bileran erabakitakoari eusteko konpromisoa hartzen dugu:

- Sail ezberdinek ekitaldian zehar gauzatuko dituzten ekintza positiboaren programa aurkeztuko dio Kultura Sailak Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan, eta urtea amaitutakoan, baita jarraipen-txosten bat ere.
- Kultura Sailaren Gazteria Zuzendaritzak erabakian jasotako aurreikuspenak bete ahal izateko beharrezkoa den informazioa bildu eta aztertze eginkizunak betetzen jarraituko du eta, horretarako, gai bakoitzean eskumenak dituzten Sailek laguntza emango diote, beharrezkoa izatekotan.

Konpromiso hau, hasiera batean, Kultura Sailaren eta Eusko Jaurlaritzako tarteko sailen artekoa izango da, eta geroago, Zuzendaritza Batzordeari eta Jaurlaritzaren Kontseiluari igorriko zaie Eusko Jaurlaritzak, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko maiatzaren 28ko bilkuran erabakitakoa indarrean jarraitzeko konpromisoa har dezan, eta Gazteriaren Euskal Legea onartu bitartean aldi baterako neurriak izan daitezzen.

Kultura Sailak, bere aldetik, Erabaki horretan onartutako politika integraleko sustapen- eta koordinazio-mekanismoei eusteko konpromisoa hartzen du. Zentzu honetan, udal plan estrategikoak egin eta garatzeko finantziarioa dela-eta, toki-erakundeei zuzendutako 1.200.000 euroko konpromiso-kreditua bideratuko da urtean, eta espero dugu zenbateko hori, oso-osorik, laguntza deialdi publiko baten bitartez, udalek eskuratzea.

Behin baino gehiagotan adierazi dugunez, 1999-2001erako I. Gazte Planarekin, erakunde ezberdinek Eusko Jaurlaritzak onartutako erakunde arteko planari atxikitzeko prozesu bati ekin zitzaion. Atxikimendu horien bitartez, Gazte Plana aldundi eta udalen gazteria-politika integralak sustatzeko tresna edo babesia izan zen. Izan ere, helburu nagusia gazteria-politikei lotutako arlo eta sailen borondate politiko eta teknikoaren inguruan sentikortu eta horiek bultzatzea zen. Horretarako, Zuzendaritza Batzordean, eta bereziki bere Idazkaritzan, pilatu ziren sustapen- eta koordinazio-eginkizun nagusiak, urteko programazioa eta ebaluazioa barne zirela.

II. Gazte Planaren bitartez tresna berriak geureganatu ditugu, “programazio eta ebaluazio desentralizatu” izendatu duguna lortu ahal izateko. Horrela, erakunde bakoitza bere sailen ekintzak bateratuz berezko programazioa egiteko gai izateaz gain, dagokion gobernu-batzordeak edo bilkurak aztertu eta onartuko du programazio hori. Gauza bera gertatuko da berariazko ebaluazioekin eta dagozkien jarraipen-txostenekin ere.

- Horretarako, Gazteriaren Euskal Behatokiak aldizka eguneratzen dituen diagnostikoak ditugu.
- Halaber, Gazte planak eta programak programatu eta ebaluatze eskuliburua, ere badugu, honako hau Zuzendaritza Batzordeak eta, bereziki, Batzorde Teknikoak adostutako lana izanik.
- Gainera, “Euskadiko gazte politikaren programazio agiria 2002-2005” dugu. Sail guztien artean burutu da agiri hau, eskuliburuko jarraibideei jarraituz. Bertako edukia erreferentziazat erabiliko da datozen urteetarako ekintzen programazioa egiterakoan.

Zuzendaritza Batzordeak, foru-aldundiei zein udalei, diputatuen kontseilu, osoko bilkura edo egoki irizten duten bestelako formula bitartez, ondorengo konpromisoa hartzeko proposatzen die:

1.a.- Diputatuen Kontseiluaren aurrean (eta/edo, hala badagokio, Foru Batzordearen aurrean) edo Udalbatzaren aurrean, Sail ezberdinek ekitaldi bakoitzean gauzatuko dituzten ekintza positiboen programa aurkeztekoa, hark onar ditzan. Urtea amaitutakoan, gainera, jarraipen-txostena ere aurkeztu beharko dute, Gazteriaren Legea onartu bitartean.

2.a.- Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen aurrean, urteko programazioa eta ebaluazioa aurkeztekoa, dagokion koordinazio-txostena egite aldera.

Azkenik, gazteei eta gizarte-eragileei dagokienez, gazteriaren legea onartu bitartean, II. Gazte Planean jasotako politika integraleko sustapen- eta koordinazio-mekanismoei eustea proposatzen da:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak "Gazte ontziak" bultzatzea.
- Gai bereziei buruz hausnartu, eztabaidatu eta jarduteko arloz arloko mahaiak.

Laburbilduz, II. Gazte Planaren indarraldia 2005eko abenduaren 31n amaitu arren, aldi baterako eta Gazteriaren Legea onartu arte, Planean bertan jasotako programazio- eta ebaluazio-metodologia deszentralizatuari eutsiko zaio, bai eta Gazte planak eta programak programatu eta ebaluatzeko eskuliburua eta Euskadiko gazte politikaren programazio agiria 2002-2005 izenekoei ere.

Eta hori dela-eta, Gazte Planaren Idazkaritzak Zuzendaritza Batzordearen Lehendakartzari proposatzen dio, Zuzendaritza Batzordeak ondorengo akordioa aztertu eta, egoki iritziz gero, onar dezala:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Gazteriaren Euskal Legea onetsi bitartean, gazteria-politika integrala bultzatzeko ondorengo ALDI BATERAKO NEURRIAK onartzea:

1.- Erakunde eskudunek gazteriarekin lotutako ekintza positiboak antolatzen eta kudeatzen jarraituko dute, hala badagokie, eta Kultura Sailak, Gazteria Zuzendaritzaren bidez, ekintza positibo horiek koordinatuko ditu eta jarraipena emango die.

2.- Gazteriaren Euskal Legea egin eta behin betiko onartzen duten bitartean, Kultura Sailak urte bakoitzean egingo dituen ekintzen programa aurkeztuko dio urteko Jaurlaritzaren Kontseiluari, urtearen lehenengo hiruhilekoaren barruan, horrek onar dezan.

Jaurlaritzaren Kontseiluari ekintzen urteko programa igorri aurretik, Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak dagokion koordinazio-mailaren berri eman beharko du.

Ekintza-programan hauek adierazi beharko dira: zein jarduera egingo diren, zer erakunde arduratuko diren jarduera horiek gauzatzeaz, zein den aurreikusitako finantzazioa (aurrekontu erabilgarrien arabera izan beharko du, eta dagozkion aurrekontu-irizpideak bete beharko ditu), zer helburu dituen, norentzako izango den eta zein izango diren ebaluatzeko erabiliko diren adierazleak.

Ekintzak gauzatzeaz arduratutako erakundeak Jaurlaritzako Sailak direnean, finantziazioan honako hauek adierazi beharko dira: programen identifikazioa eta zer aurrekontu-saili eragiten dien, eta bat datozen eskura dagoen aurrekontua eta proposatutako helburuak.

3.- Urte amaiera bakoitzean, Kultura Sailak urte horretako lanaren jarraipen-txostena aurkeztuko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari. Txosten horretan aztertuko da zenbateraino koordinatu diren sail eskudunek egindako ekintza positiboak lanari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruzko politikekin. Txostenean, halaber, aipatutako gaietan eskumena duten sailek zer ekintza gauzatu dituzten ere azalduko da.

Txosten horretan aipatutako gaietan eskumenak dituzten Sailek gauzatutako ekintzak adieraziko dira, II. Gazte Planean aurreikusitakoak zehaztuz, bai eta II. Gazte Planeako esku-hartze ildoren batekin bat datozenak ere, horretan aurreikusi ez badira ere. Kasu bietan, bete nahi diren helburuak adieraziko dira.

Jaurlaritzaren Kontseiluari bidaltzen zaion txostenean adierazi beharko da zein mailatan osatzen diren lanari, hezkuntzari, etxebizitzari eta informazioaren gizarteari buruz Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak egindako gazteria-politikarekin.

4.- Kultura Sailaren Gazteria Zuzendaritza arduratuko da akordio honetan aurreikusitakoa betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzeaz eta aztertzeaz. Horretarako, aipatutako gaiez arduratzen diren sailek laguntza emango diote behar duen bakoitzean.

5.- Kultura Sailak, bere aldetik, gazteria-politika integrala bultzatzeko eta koordinatzeko mekanismo hauek izan edo bete beharko ditu:

- Gazte-ataria eta Leihatila bakarra (Gazteukera)
- Gazteria-politikarekin lotutako planak koordinatzea.
- Arloko mahaiak.
- Udal-plan estrategikoak egin eta garatu ahal izateko finantzatzea, eta gazteentzako ekipamenduen sarea indartzea.

II. Gazte Planaren Idazkaritza, Vitoria-Gasteizen, 2005eko irailaren 25ean .

Xabier Sánchez Robles
GAZTE PLANAREN ZUZENDARITZA BATZORDEKO IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA JUNTA RECTORA DEL PLAN JOVEN